

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 2.137 lanpostutako ezohiko LEPa berretsi die sindikatuei

Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahai Nagusiaren bileraren buru izan dira, gaur goizean, Beaumont eta Solana kontseilariak

Ostirala, 2018.eko apirilak 13

Gaur, Nafarroako Gobernuak aldi baterako enplegua egonkortzeko bere ezohiko Lan Eskaintza Publikoa (LEP) berretsi die sindikatu-ordezkariei. LEPak Foru Administrazioako 2.137 lanpostutarako deialdia aurreikusten du.

Halaxe jakinarazi diete, gaur goizean, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek eta Hezkuntzako kontseilari María Solanak. Haiek izan dira buru Nafarroako Foru Komunitateko eta haren organismo autonomoetako Langile Funtzionario eta Estatutarioen Negoziazio Mahai Nagusiaren bileran.

Proposamen hau [martxoaren 13an](#) aurkeztu zitzaizen sindikatuei — martxoaren 27ra arteko epea zuten alegazioak aurkezteko—. Proposamen horiek aztertu ondoren, Foru Gobernuak berretsi egin du bere proposamena, eta gogorarazi du joan den apirilaren 5ean Enplegu Publiko Sektoriala Koordinatzeko Batzordean (Madrilen) egin zen bilerari lotuta dagoela proposamen hori, eta lanpostuen konfigurazioa gainerako autonomia-erkidegoetakoaren antzekoa dela.

Alde horretatik, kontseilariak azpimarratu dute, halaber, aintzat hartu direla sindikatuak sarbide-sistemari dagokionez egin dituzten eskariak. Sarbide-sistema honelakoa izango da: lehiaketa-oposizioa Osasunean eta Hezkuntzan, eta oposizioa Nukleo Administrazioan.

Sindikatu-negoziazioa itxi ondoren, datozen egunetan langileen foru-dekretuak eta LEPa onesten duen beste foru-dekretu bat onetsiko dira. Horren ondoren, dagozkion oposizioen deialdia egin ahal izango da.

Lanpostuen banaketa

LEPak 2.137 lanpostu ditu. Horietatik 1.141 irakasleei dagozkie; 635, osasun-langileei (621 Osasunbiden eta 14 Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan); eta 361, Nukleo Administrazioari.

Gaur aurkeztu den behin betiko proposamena martxoan aurkeztutakoaren ia berdina da—hiru aldaketa egin dira osasun-esparruan, beste horrenbeste akats zuzentzeko—. Hala, García Orcoyen ospitalean, analisi klinikoko BFE lanpostu bat mikrobiologiako batekin ordeztu da; NOGen, dermatologiako BFE lanpostu bat aurpegi-masailetako kirurgiako beste BFE batekin ordeztu da; eta farmazia-lanpostu bat NOGen beteko da, zerbitzu zentraletan bete beharrean.

Gogoraziko denez, ezohiko edo egonkortzeko Lan Eskaintza Publiko hau 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan gaitutako ezohiko prozesuaren emaitza da. 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.6 artikuluan xedaturikoaren arabera, lege horretan zehaztutako sektore jakin batzuetan, administrazio publikoek, lanpostuak berriro betetzeko ohiko tasaz gain, tasa gehigarri bat eduki ahal izango dute aldi baterako enplegua egonkortzeko: gehienez, aurrekontua esleituta eduki duten eta 2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko gutxienez hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe bete diren lanpostuen % 90.